1. SARRERA.

2012. urteko zerga itunduen sarreren aurrekontua prestatzeko 2011ko likidazioaren aurreikuspena erabili da oinarri gisa, datu hauek abiapuntu harturik: Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilketa datuak (Kudeaketa Propioari dagozkionak), eta Estatuaren datuak (EAErekin doitu beharreko zerga kontzeptuei dagozkienak), denak ere abuztuaren 31ra bitartekoak.

Gainera, hiru dira nagusiki kontuan hartu behar diren faktoreak Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga itunduengatik 2012ko ekitaldian izango duen bilketaren aurrekontua egiteko.

- Jarduera ekonomikoaren bilakaera, aldagai nagusi ekonomiaren hazkunde nominala duena, baina ez da ahaztu behar Gipuzkoako eta inguruko lurraldeen ekonomiaren egoera zalantzaz beterik dagoela eta egoera aldakorra dela.
- Rover auziari buruzko sententziaren ondorioz, EAEk 435 milioi euro itzuli behar dizkio Estatuari eta aurreikusten da itzulketa hori hiru zati berdinetan egingo dela 2011n, 2012an eta 2013an.
- Bilketan eragina duten arau aldaketak.

Laburbilduz, 2012. urterako hemen aurkezten den aurrekontua, Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itunduen sarrerei buruzkoa, batik bat faktore hauek kontuan hartuz prestatu da:

- 3.688.452,7 mila euroko likidazio aurreikuspena zerga itunduengatik 2011. urterako, urte horretako aurrekontua 3.940.019,0 mila eurokoa denean; hau da, aurrekontuaren gauzatze maila %93,6koa da.
- %3,6ko hazkunde nominala Gipuzkoako ekonomian 2012. urterako.
- Araudian sartutako aldaketek zergabilketan duten eragina, zerga batzuen egoera bereziak baloratuz.

1. INTRODUCCIÓN.

Para elaborar el presupuesto de ingresos por tributos concertados para el año 2012, se toma como base la previsión de liquidación para 2011 realizada a partir de los datos de recaudación a 31 de agosto de la Diputación Foral de Gipuzkoa (por Gestión Propia) y del Estado (por los conceptos tributarios objeto de ajuste con la CAPV).

Además, tres son los factores que básicamente deben tenerse en cuenta para realizar el presupuesto de la recaudación por tributos concertados de la Diputación Foral de Gipuzkoa durante el ejercicio de 2012.

- Evolución de la actividad económica, siendo la variable relevante el crecimiento nominal de la economía, pero no hay que olvidar que la economía gipuzcoana y de los territorios cercanos está lleno de dudas y que la situación es incierta.
- Tras la sentencia respecto al litigio sobre la empresa Rover, la CAPV deberá devolver 435 millones al Estado y se prevé que esta devolución sea en tres partes iguales en 2011, 2012 y 2013.
- Cambios normativos con incidencia recaudatoria.

En resumen, el presupuesto de ingresos por tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas para el año 2012 que aquí se presenta, esta condicionado básicamente por los siguientes factores:

- Una previsión de liquidación para 2011 por tributos concertados de 3.688.452,7 miles de euros frente a un presupuesto de 3.940.019,0 miles de euros, es decir con un grado de ejecución presupuestaria del 93,6%.
- Un crecimiento nominal de la economía guipuzcoana para el año 2012 del 3,6%.
- Impacto recaudatorio de las modificaciones normativas, valorando circunstancias particulares de algunas figuras tributarias.